

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

**OSASUNA**

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Osasunak 500.000 euro inbertitu ditu lanetan Artaxoa, Aiegi, Cadreita, Larraun eta Mendabiako osasun-zentroak hobetzeko

*Horrela tokiko erakundeei emandako laguntzei berriko ekin diete*

Asteazkena, 2017.eko abuztuak 16

Osasunbideak 500.000 euroko laguntzak eman dizkie Artaxoa, Aiegi, Cadreita, Larraun eta Mendabiako udalei, 2017. urtean zehar tokiko kontsultategiei berrikuntzalanak finantzatzeko. Horrela, mota horretako lanak egiteko tokiko erakundeei laguntza emateari ekin diete berri, 2012. urtean emateari utzi eta gero.

Zehazki, Artaxoako Udalak 23.655 euro jasoko ditu dauden eremuak berrantolatzeko lanetarako, administrazio-harrera eremuan pribatutasun baldintzak hobetzeko pazienteen arretan, eta segurtasun handiagoa historia klinikoak gordetzean.

Aiegiko Udalak 149.908 euro lortu ditu kontsultategia handitzeko, pediatria zerbitzua ezartzea eta pediatria eta erizain bat lanean hastea aurreikusita dagoelako.

Cadreitako Udalarari 14.329 euro eman dizkiote kontsultategia berritzeko, gaur egungo azalera ez delako nahikoa garatzen duen jarduerarako. Berrikuntzarekin beste kontsulta bat izango du.

Larraungo Udalak 300.459 euro izango ditu Larraungo kontsultategia handitzeko eta berritzeko, 2016an esleitutako biztanleriaren kupoa handitu zuena, plantillan beste mediku bat eta erizain bat kontratatuz. Horrez gain, Larraunen (Lekunberri) birgaitze-unitate periferiko berri bat aurreikusita dago, beraz, kontsultategiaren azalera handitu behar da, mediku errehabilitatzaileko eta fisioterapeutako kontsulta bat eta errehabilitazioko gimnasioa izateko.

Azkenik, Mendabiak 10.430 euroko laguntza izango du kontsultategia handitzeko proiektua idazteko, bere hiru kontsulta-areto izan ditzan.

### Aurtengo martxoan deitutako laguntzak

Laguntzak aurtengo martxoan deitu ziren, bost urtetan etenda egonda, eta Nafarroako kontsultategi medikoen titularrak diren tokiko



Laguntza jaso duen herrietako bat den Artaxoako Udalaren irudia.

erakundeek izango dute aukera, gaur egun, 234 zentro direnak.

Laguntzak lan hauek finantzatzeko izango dira: kontsultategiak handitzeko lanak, hau da, kokatuta dauden eraikinean azalera berri bat eraikitzea ekartzen dutenak; dagoen azalera bat berritzeko edota egokitzeko lanak; handitzea eta berritzea jasotzen duten lanak, eta kontsultategiko eraikineko instalazioak egokitzeko edo hobetzeko jarduera txikiak, hala nola egiturazko segurtasunean eragiten dutenak, iturgintzakoak eta saneamendukoak, oztopo arkitektonikoak kentzea, estalkiak, fatxadak eta kanpoko arotzeria, betiere mantentze-jarduera gisa ez badaude sailkatuta.